

Ez ohiko Eguberrien atarian

Ohiko ekitaldiak bertan behera edo moldaketa handiak eginda burutu beharko dira. Arretarik ez zaio kendu behar, gainera, egoera epidemiologikoari / 12-13

Mikel Arregi
EAJ-PNVko
zinegotziaren agurra
urteko azken
Udal batzaraldian / 11

Olentzero eta Mari
Domingi gure artean
izango dira, Aiurri.eus
webgunearen
pantailaren bitartez / 13



Lourdes Iriondok
bere lehen emanaldia
Andoainen
eskaini zueneko
argazki-sorta / 8-9



1936ko Gerra ardatz hartutako liburuak

Urnietako Udalak denboran luzatu den egitasmoa aurkeztu zuen aurreko astean. Memoria historikoa ardatz duten bi liburu dira / 2-3



Trasteleku eta biltegi txikien alokairua Urnietan

barnE

TRASTELEKUAK M² BATETIK AURRERA
 ENPRESENTZAKO BILTEGI HANDIGOAK
 ALTZARI-GORDELEKUAK

Merkaturako preziorik onenak bermatzen ditugu!

605713127

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA
 Bulegoa: Muebles Iturbé
 barne.eus



Urnietan iraganean gertatutako giza eskubideen urraketen kronika bi liburuetan jaso dute. AIURRI

Xabier Lasa URNIETA

Urnietan 1936-1945 epe historikoan gertatutako giza eskubideen zapalketa eta errepresioa aztertzen duten bi liburu aurkeztu zituzten Saroben joan den ostiralean. Aranzadi elkarteko Iraitz Arezabaleta historialaria da beren egilea.

Bi liburuak salgai jarri dituzte jada, 10 eurotan. Hiru tokitan eskura litezke: Bertan herritarren arreta bulegoan, Urnietako Udal liburutegian, eta Elkar liburu dendan (dendatan) eta baita online bidez Elkarren webgunera sartuz.

Jorge Segurado Urnietako alkateak, Mikel Pagola zinegotziak eta Iraitz Arizabaleta historialariak aurkeztu zituzten *“Urnietan, 1936-1945 Giza Eskubideen Zapalketa eta Errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan”* izenburuko bi liburukiak.

Ekitaldian, Aukeran Dantza konpainiak bi dantza saio eskaini zituen, Edu Murumendiaraz koreografoaren zuzendaritzapean. Memoria historikoa ardatz duen *“Gernika, Mihise gaineko dantza”* ikuskizuneko bi zati taularatu zituen konpainiak, hain zuzen. Urnietako hainbat dantzarik osatzen dute ospe handiko dantza taldea.

Seguradok adierazi zuen Urnietako eta urnietarren memoria historikoa berreskuratu, eguneratu eta ezagutarazteko helburua dutela liburuek, eta, aldi berean, “gertatu zenaren egia zabaldu nahi dute, mundu

1936ko Gerrari buruzko liburua

Memoria historikoa ardatz duen liburua aurkeztu dute Urnietan. Arantzadi elkarteak bideratu du argitalpena, Urnietako Udalaren enkarguz. Aurkezpen ekitaldian izan zen lanak amaitzeko ardurak hartu dituen Iraitz Arizabaleta historialariak

guztiak ezagutu dezan eta memoria kolektiboaren parte izan dadin”.

Saroben bildutako entzuleei gogorarazi zien sasoi hartako Urnieta herriak ondo bereizita-ko bi gune zituela. “Alde batetik, gaur egungo hirigunea eta hura inguratzen duten lau auzoetako baserriak (Goiburu, Lategi, Ergoien eta Oztaran); bestetik, Oria auzoa eta Oztaran auzoaren mugakide zen landa-lur guztia”. Bukatzeko, errepresioa modu anitzera sufritu zuten urnietarrak goraipatu zituen, Oriako langile-azukoak bereziki.

Mikel Pagolak liburuek non duten sorburua azaldu zuen. “Bizikidetzatza batzarreko presidentea zen Maribel Vaquerok gidatuta, eta Udalean ordezkaritza duten alderdi guztien aldeko jarrerarekin Urnietan ere denbora askoan isilik egon eta gero, garaia bazela erabaki zen”.

Aranzadik egin duen lan sakonari esker informazio zabala publikatu dela erantsi zuen Pagolak. “Sufrimendu asko pairatu behar izan zuten urnietarrek eta guztiek aitortza publikoa merezi dute, eta hori lortzen saiatu gara liburuekin”.

Iraitz Arizabaleta historialariak liburukiak hiru ataletan banatuta daudela azaldu zuen. “Lehenbizi, Urnietako testuinguru historikoa azaltzen da, 1931tik 1936a arte, gerrak eztanda egin arte. Bigarren zatian, gerra zibileko gertakizun belikoek Ur-



Dantzariak, ezker-eskuin: Claudia Talavera, Unai Iraola, Uxue Sanchez, Maier Murumendiaraz, Unai Balerdi, Ane Etxeberria, Danel Serrano, Nahikari Sanchez. AIURRI

1936ko Gerra, Urnietan haur izandakoen begietatik

NATI GARMENDIA

Nati Garmendia Ubillosek sei urte eta Agurne Arizmendi Txapartegik bi urte eta erdi zituzten faxistek 1936ko uztailaren 18an kolpe militarra eragin zutenean. Adi-adi jarraitu zuten aurkezpen ekitaldia Saroben, eta aski ezagunak egin zitzaizkien bertan aipatu zituzten gora behera ugari, baita izendatu zituzten biktimak.

Nati Garmendiak, familiarekin batera, urnietar askok osatu zuten ebakuazioan parte hartu zuen. “Frankistak Urnietan sartzeraz zihoazela-eta beldurra zen bazterretan, eta guk Aiako Gaztañaga baserrian hartu genuen aterpe, hamabost bat egunetan. Gu sei ginen: gurasoak (Alejandro eta Rikarda) eta lau ume, Maria (1922), Joakina (1923), Jose (1925) eta neu (1929). Hogei bat lagun baserrian bizitzen! Bertako bi bikote, bost ume, bi anai-arreba ezkongabeak, izeba-osaba, eta gu seiak. Oso familia zintzoa bilatu genuen Aian; guregatik edozer egiteko pronto zeuden, eta ukuiluan belar artean lo egiten zuten, guk ohea eduki genezan. Dena bukatu, eta handik urtetara ere harremana mantendu genuen Aiako familia harekin.

Gurasoek Txapelania taberna edukitzen zuten errepe nagusiko kalean Urnietan, eta ama egundoko sukaldaria izaten zen. Era horretan, Aiako baserrian ederki jan genuen; egunero zopa, babarrunak eta baita txipiroiak; izan ere, baserri bertako amona ausarta zen, eta egunero Oriora jaisten zen enkarguak egitera. Egia esatea nahi baduzu, hamabost egun haiek oporrak balira bezala bizitu izan nituen, abentura batean ibili izan bagina bezala! Zer den umea izatea!

Urnietan bake pixka bat berreskuratu zela eta, itzuli egin ginen berriro. Hura kuxiedadea tabernan! Dena hustuta topatu genuen, dena lapurtu ziguten! Bestela, guri ez ziguten kalterik egin, baina bai auzoko batzuei: betirako ezkutarazi zuten Trino Olaizola gaztea ere ezagutu genuen. Gero, urteak aurrera joan ahala, gure ahizpetako



Nati Garmendia eta Agurne Arizmendi. AIURRI

bat Txomin Barkaiztegiarekin ezkondu zen, eta orduan hasi ginen jabetzen Barkaiztegi familiak zenbat sufritu zuen: aita eta seme bat fusilatuak, eta ez dakit zenbat anai kartzelan edo Iparraldean ihes eginda”.

AGURNE ARIZMENDI

Agurne Arizmendik lau urte eta gehiago igaro zituen aitaren arrastorik gabe. “Frankistak Urnietan sartu aurretik, hiltzera zihoazen herritarren zerrenda zabaldu omen zen. Gura aita abertzalea zen, eta behin esan zioten: zerrendan omen zaude, eta hobe dezu alde egiten baduzu! Apuratu, eta Iparraldeko bidea hartu zuen Etxalarko

mendietan barrena. Etxean azaldu gabe lau urte pasa zituen horrela. Bien bitartean, gure ama, bi ume (Josebe eta biok) besoetan hartu eta amonaren etxera lasterka, Marizulo baserrira! Amak, tarteka, guardia zibilen bixita jasan behar izaten zuen, *señora, dónde está su marido* galdezka.

Marizulon bolada eginda, etxera itzuli ginen. Natiren familia eta gurea konfiantza handikoak izaten ziren, eta nik haien etxean denbora asko pasatzen nuen. Natiren aita, nire aitatzat hartuta neukan kasik, eta noizbait gurea Urnietan azaldu zenean Iparraldeko babes utzita, orduan esan

zidaten “hau da zure aita!”. Baina nik ezetz, nire aita Txapeleneko Alejandro zela!

Gure etxeko sukaldean inoiz ez ziren aipatzen gerra garaiko kontuak. Dena “ixo!” izaten genuen.

Zer esan eta zer ez jakinda kontuz ibiltzeko urteek asko iraun baitzuten Urnietan, galdu zutenen etxeetan batez ere. Nolanahi ere, goiz ala berandu, jakin genuen aitaren hiru ahizpei (Gloria, Margarita eta Maria) nola moztu zieten ilea, nola isurarazi zieten olio errizinoa eta nola derrigortu zituzten egunero-egunero Andoaingo komandantziara joatera sinatzera, Alkain hiru ahizpei bezalatsu”.

nietan eta urnietarrengan izan zuten eragina aztertzen da. Eta azkenik, hirugarren zatiak, behin armada frankistak Urnieta bereganatu ostean ezarri zuen erregimena jorratzen du, urnietarren aurka burututako errepresioa eta giza eskubideen

LIBURUAREN LEHEN ATALEAN TESTUINGURU HISTORIKOA KONTATZEN DA

urraketak aztertzen dira. Horretarako, Marijo Henriquesen zuzentzen duen Urnietako Artxiboa ezinbestekoa izan da Urnietaren bilakaera soziopolitikoa zein errepresioan ikertzeko unean”.

Ikerketa prozesuan hainbat metodologia erabili izan dituela adierazi zuen. Era horretan, artxiboetako agiriez gain, testigantza pertsonalei garrantzia eman zien: “Giza faktorean sakondu nahi izan da, eta garrantzitsua izan da sasoi hura bizi izan zutenen pertsonen

bizipenak jasotzea. Ez baita aski kontaketa historikoa egitea eta agiritegiak ondarea argitaratu jartzea; oinarrietara jo behar da, eta herritarren gertuko gora beherak jaso behar dira”.

BIGARREN ATALEAN GERRAK URNIETA ETA URNIETARRENGAN IZAN ZUEN ERAGINA AZTERTZEN DA

Urnietarren oroimen kolektiboan bi liburuak argitaratzea lehen pausotzat jo zuen Arizabalek. “Ikerketa historikoari gertatutako ezagutaraztea dago. Justiziaren eta erreparazioaren atalak beste esparrukoak dira, baina biek horiek gertatutakoa jakitea eskatzen dute alde aurretik. Ezagutzarik gabe ezinezkoa ondoren doazen beste bi printzipioak ulertzea”.

Bi liburukiek ehunka urnietarren egoera anitzetan bizi eta pairatutako gorabeherak jaso dituzte; hilketak, epaiketak,

kartzelaldiak, fronteko borrokalduak, langile batailoak, ile mozketak, isunak, exilioa, ondasunen errekeisak...). Gainera, zapalketa jasandako herritar horietako asko eta asko kasik berrehun irudiez osatutako argazki sortan topa daitezke.

HIRUGARREN ATALEAN ERREPRESIOA ETA GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK JASO NAHI IZAN DIRA



Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburuordea eta Jorge Arevalo Lanbide Heziketako sailburuordea. IREKIA

Adostasun politikoa Legebiltzarrean

EH Bilduk Hezkuntza Batzordean sustatu zuen ekimenak kontsentsu zabala lortu du Eusko Legebiltzarrean

Erredakzioa URNIETA

DBHren eraikin berria agintaldiz agintaldi agertzen den egitasmoetakoa da, argia noiz ikusiko zain izaten dena. Ikasturte honetan Egapeko zuzendaritzak urte luzez egindako korapiloa askatzeko ekimena hartu du, eta afera Eusko Legebiltzarre-raino iritsi da. Asteartean eztabaidatu zen, Hezkuntza batzordean. Alderdi guztien artean adostu zena honako adierazpenean laburbildu dute: "Kargarik eta zortasunik gabeko orube bat berehala lagatzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Egape Ikastolan irakasteko eraikin berri bat egiteko proiektua kontratatzeke espedienteari hasiera eman diezaion". Beraz, blokeatuta zirudien arazoa gainditzeko urratsa eman dela dirudi.

Astearteko batzordearen aurretik, Hezkuntza saileko ordezkariak Urnietan bertan izan ziren. Bisitaldi hari buruzko kronika aurreko Aiurri astekarian argitaratu zen. Horren aurretik, Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak Urnietara egin zuen bisitaldia, baina hari buruzko xehetasunak ez dira publiko egin.

Egape ikastolako zuzendaritzak eta Azkorteko guraso elkarteak izan duten ekimena EH Bilduk eraman du Legebiltzarrerara, eta alderdi guztien artean akordioa lortu da. Prozesuan ika-mika izan da bi alderdi abertzaleen artean. Diferentzia horiek agerikoak izan ziren Hezkuntza batzordean, eta baita abenduaren

4ko Udal batzaraldian ere. Nabardurak nabardura, Hezkuntza Sailan gaia berrabiarazi dela esan daiteke.

Legebiltzarkideen iritzia

PP-C's koalizioako bozeramalea kezkatuta agertu zen aferarekin: "Ezagutzen dugu gertaeren kontakizuna, baina ez dakigu zergatik gertatu den, eta horrek kezkatu egiten gaitu; izan ere, zergatia ezagutzen ez badugu, berriro gerta daiteke, eta inork ez digu saihesten 20 urte barru berriro gaia mahaigaineratu behar izatea".

Elkarrekin Podemosek batzordea Egapekoen hitzak eraman zituen, eta horiez "oso harro" daudela adierazi zuten: "Egapeko komunitateak dituen baldintza zailak izan arren, gai dira beren jarduna esperientzia handi bihurtzeko".

PSE-EEk Udalaren eta Hezkuntza Sailaren arteko lankidetzatza eskatu zuen. Eta lanean ipintzeko garaia dela erantsi zuten: "tresnak jada badaude horretarako".

EH Bilduk, proposamena Legebiltzarrerara eramanez gain, kronograma bat adostea eskatu zuen "ikastetxeak jakin dezan noiz has daitekeen bere premiak asetzen".

EAJ-PNVko bozeramaileak, berriz, "2006an ez bezala, irteera laukitxoan dadoak eta ibilbidea dauzkagu. Ezagutu dugun historiaren arabera, ziur asko gaur eskatzen duguna errealtagotagoa eta egingarriagoa da".



Abenduaren 10ean agerraldia egin zuten Urnietako Udal batzarra aretoan. AIURRI

"Urnietarren Urnieta" aldarrikatu du EH Bilduk

Udalgintzan erakusten duten posizioaren atzean koalizioa dagoela erakutsi nahi izan zuen Ainara de Miguelek zuzentzen duen zinegotzi taldeak. Agerraldian aurreko agintaldietako ordezkari ezberdinak izan ziren

Jon Ander Ubeda URNIETA

Gobernu taldearen eta oposizio-ko alderdien arteko talka areagotuz doa. Azken hiru hilabe-

teetako Udal batzarraldietan agerikoa da hori. Eztabaidak areagotuz doaz Pagola, De Miguel eta Gonzalezen artean.

Egoera politikoari errebasoa emateko, EH Bilduk agerraldia egin zuen abenduaren 10ean. Talde irudia emanez, gainera.

Urnietako herriari

EH BILDU URNIETA

Aurrekontuetan, gaur bertan egin dugun proposamenean, garbiro erakutsi dugu gure postura:

Herria heritik bizi dugu, ez bulegotik, ez goitik behera, modu horizontalean, paretik parera baizik. Bizirik dagoen herria nahi dugula erakutsi dugu, merkatarien zaintza haiekin lantaldean jardunez, edota, Bigarren hezkuntza eraikina bultzatuz, oso harro egiten gaituen hezkuntza proiektu sendo eta eredugarri horri dagokiona, eta bide batez, batxilergoa ere izango duena. Honela, gure gazteak, herrian heziko dira, herriko hizkuntzan, herriko baloreetan. Hori defendatuko dugu astelehenean legebiltzarrean ere, edonork jarrai dezake eta bere kabuz ondorioak atera.

Parke estaliaren premia ikusi dugu, krisi honek areagotu duen premia. Hori ere gure proposamenean atxikia dugu.

Feminismoak instituzioen berebiziko babesa behar du. Berdintasun teknikariaren kontratazioa proposatzen dugu, baina ez edozein profil, berdintasunean aditua den norbait baizik. Honela, berak gidatuko du udala politika feminista egokietara eta ez alderantziz.

Informatika eta komunikazioaren herriaren dirua gastatzea egokia bada, denon hitzak entzun behar duela esatea naturalki ateratzen den eskaera ez al da? Denon kaleak, denon prentsa, herria herriarena baita eta udala herriaren zerbitzura dagoen lan taldea.

Musika eskolaren kofinantziazioa ere proposamen sendo gisa planteatu dugu. Herena kofinantziatu badaiteke, zergatik herriarren sakelak sakrifikatu? Gainera, eztabaidagai atera

dezagun eskola bera eta bultzada eman diezaiozun bertan jasotzen den kalitatezko eta ezinbesteko zerbitzu horri.

Entzuten duen politika bultzatuko dugu, kritika-atakea ez den foroak txalotuz, inor konbentzitu baino, denon iritziak balio dutela erakusten duen politika. Gure herriko produktua, gure herriko jendea, gure herriko hizkuntza eta kultura. Aniztasuna eta iritzi guztien sehaska izan dadila Urnieta. Zintzo jokatu dugu, esana betez eta kritika oro proposamenez jantzi. Zuri-beltzean diharduen politika sistema eguneratu eta kolorez jantzi nahi dugu Urnietako bizi-pelikula, urnietar oro lehen mailako protagonista izanik, ez goitik behera, paretik parera baizik. Denok ez gara berdinak, gu beste aldatibata bat gara, desberdina, desberdinekin osatua, herritik, herriarentzat. Atzera begira kritikoki so egin eta hazi eta sendotu den proiektua. Zirelako gara, eta garelako izan en dira. Gora urnietarren Urnieta.

Herri barruko kontsumoa sustatzeko ekimena

VIP izeneko Gabonetarako bonu-kanpaina martxan dago, joan zen astelehenaz geroztik. 20 euro baino gehiago gastatzen duten urnietarrek 25 euroko bonu-opariak lortzeko aukera izango dute

Erredakzioa URNIETA

Kanpainak Urnietako Udalaren babesa du, 20.000 euroekin finantzatuko baitu ekimena. Urnietako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-establezimenduei bultzada eman nahi zaio, pandemiarekin eragin den krisi handiaren aringarri modura. Kanpaina aurrera eramateko hitzarmena sinatu da Udalaren eta On Bizi elkartearen artean.

Kanpainaren mekanika

“VIP txartela” emango zaie kanpainan parte hartu nahi dutenei. Horrekin batera lau taldetan banatu dira merkataria:

- Janari-dendak.
- Ostalaritza.
- Osasuna eta edergintza.
- Altzari, osagarri eta zerbitzuak.

“VIP txartela” delakoa eskuan, zigilu bat lortuko du erosleak aurrez aipatutako lau taldeetako dendaren batean 20 euro baino gehiago gastatzen duen bakoitzean. Lau talde horietako bakoitzean zigilu bana lortu ondoren eskuratu ahal izango du, azkenik, 25 euroko bonu-oparia.

Txartela osatzeko epea datorren urtarrilaren 6an amaituko da, eta ondoren emango diren bonuak berriz, urtarrilaren 15etik otsailaren 28ra bitartean gastatu ahal izango dira.

Beraz, helburua argia da. Eguerrietan barne kontsumoa sustatu nahi da, urtarrilaren erdialdetik aurrera sariaz gozatu ahal izateko. Guztira 25 euroko 700 bonu banatuko dira, 175 talde bakoitzeko.

25 EUROKO 700 BONU BANATUKO DIRA, LAU AZPI TALDEETAKOREN BATEAN KONTSUMITU AHAL IZATEKO



On Biziko Hernandez, Urnietako alkate Segurado eta Iturbe diseinatzailea. UDALA



Nieblatarrak eta Udal ordezkariak Donostiako Epaitegiaren atarian. UDALA

Asier Nieblaren heriotzari loturiko epaiketa Donostian

Akusatuak eta epaileak bi urteotan Urnietako familiak bizi duen egoera zaila entzun ahal izan zuten

Erredakzioa URNIETA

2018ko urriaren 11n hil zenetik, Asier Nieblaren senideak aste hau iristea desiatzen ari ziren, behin eta berririo justizia eskatzen aritu direlako. Bada, kasua epailearen aurrean egon da aste honetan zehar. Era berean, oso une zailak izan dira etxekoentzat eta ikustea besterik ez dago hitza hartu behar izan zutenean gurasoek eta anai-arrebek emozioari eusteko izan zituzten zailtasunak.

Justizia eskatzen dute, eta akusatu nagusiari egia esateko erregutu. Haserre agertu dira, gainera, Asier senidearen ustezko erasotzailearekin. Heriotza eragin zion kolpekada eman zion gaztea espetxetik epaitegi-raman dute egun hauetan, epaiketaren jarraipena egitera. Senideei barkamena eskatu zien, inondik inora ez zuela hil nahi adieraziz. Kartzelan dagoela, berari buruzko gezurrak entzun

behar dituelako haserre agertu zen.

Nieblatarrak, ordea, ez daude hain erraz etsitzeko prest eta oso gogor jo dute erasotzailearen aurka. Yoanak duela gutxi honako idatzia argitaratu du: "Justizia, pixkanaka akusatuaren gezurrak eroriz doaz. Gezurretan ari daitekeen bakarra da epaiketan, baina justizia ez da tuntu. Ezta gu ere. Aurrean egoten jarraituko dugu, gure anaia defendatzen. Berak ez zuen aukera hori izan, eraso koldarra eta bizkarrez egindakoa pairatu zuelako.

Akusatuak hilda dagoen gure anaiak baino eskubide gehiago dituela dirudien arren, bere familiak haren memoria zaintzen jarraituko du. Tamainako eraso egiten duzunean sentitzen dut adieraztea ez da nahikoa, ekin-tza bakoitzak bere ondorioak ditu. Justizia Asier Nieblaren-tzat".



Urnietako Udalaren babesa izan dute nieblatarrak, epaiketan zehar. UDALA



Denda Berri elkarteak kideak, egoitzaren atarian. UDALA

Denda Berri elkartearen Gabonetako zozketa

Datorren abenduaren 20an egingo da zozketa jubilatuen egoitzako tabernan, eguerdiko 13:00etan

Erredakzioa URNIETA

Parte hartzeko interesa dutenek abenduaren 20ra bitarte izango dute txartela jasotzeko aukera, goizeko 11:00etatik eguerdiko 12:00etara. Horretarako Denda Berri elkarteak karneta aurkeztu beharko da, eta bazkide kuota ordainduta eduki beharko da.

Bazkide bakoitzari zenbaki bat banatuko zaio. Bestalde, bertaraten direnei txistorra pintxo bat eta edaria emango zaiela adierazi dute antolatzaileek. Hiru sari banatuko dituzte:

1. Saria: Txerrikumea.
2. Saria: Eguberrietako saskia.
3. Saria: Urdaiazpikoa.

Arduraz jokatzeko deia

Urnietako Udalak kontzientziazio kanpaina abian jarri du, "aisialdi arduratsu baten alde egiteko, Covid-19 kasuek gora ez egiteko eta atzerapausorik ez ematen saiatzeko. Beraz, errespetatu ditugun neurriak eta joka dezagun arduraz". Ostalaritzaren irekierarekin bat egin du Udalaren kanpaina berriak.



Ikastaro berriak urtarrietik aurrera

B2 eta C1 mailako ziurtagiria prestatzeko ikastaro berriak eskainiko ditu Urnietako AEK-k

Erredakzioa URNIETA

2020-2021 ikasturteko orain arteko eskaintzaz gain, aipatutako bi ikastaro horiek eta migratzaileentzako hastapeneko klaseak eskainiko dituzte.

B2 mailako klaseak astean bitan izango dira, 09:30etik 11:30era. Horrez gain, bi astez behin orduerdiko tutoretza jasoko dute ikasleek. C1 mailako ikastaroa ere astean bitan izango da, 09:00etatik 11:00etara. Kasu horretan ere, bi astez behin irakaslearekin tutoretza egiteko aukera eskainiko da.

Ikastaroak euskara ikasi edo hobetu nahi duten pertsonen eskainta daude, titulua edo ziurtagiria eskuratu nahi dutenez gain. Dirulaguntzak matrikularen %100erainokoak izatera irits daitezke.

Aipatutakoaz gain, autoikas-kuntzako ikastaroak ere eskaintzen ditu AEK-k. Bereziki klaseetara joateko zailtasunak dituzten ikasleei zuzenduta.

Euskaltegiak gela guztiak egungo osasun egoerara egokitu daude, beharrezko neurri eta produktuez horniturik.

Informazio gehiago

607 592 864 telefono zenbakian, eta AEK euskaltegian bertan.



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Orain arte bezala; baina tabernekin

Indarrean da bigarren olatuko neurri arintzea, eta larunbatz geroztik, bizi, ikusi eta entzundakoak laburbiltzen saiatuko naiz lerrootan.

Honakoak aintzat hartuz:

- Ez dut Polizia lanik egingo.
- Ez naiz inoren erabakien zaindari.
- Ez naiz inoren jarreraren erantzule.

Irakurleren batzuk nik ere tranpak egin ditudala leporatuko didatenez, honatx aitortza. Bai, egin ditut. Bitan, hain zuzen ere. Lehena lehen olatuan, afaria lagun batzuen etxean, hiru lagun denera. Bigarrena, bigarren olatuan, beste afari-merienda bat beste bi lagunekin. Egon nintzen horietako inor ez da COVID-19arekin kutsatu, dakidala behintzat. Ni neu ere ez. Dakidanik, behintzat.

Larunbat goizean kafesne bat hartu nuen Guria jatetxean, goizero egiten dudanez. Etxera bueltan, bi gazte: "Ze, gustura, ezta, tabernak irekita dagoeneko?", nik, galdera, inuzente. Erantzuna, azkarra, ti-ta: "Beno, orain arte bezala, guretzat, baina orain tabernekin". Harrapa ezak / ezan. Adimen apur bat izanez gero, ulertzen erraza, itxialdiak itxialditik gutxi izan duela gazte horientzat.

Larunbat arratsaldean etxean eman nuen. Leihotik Guriako terrazatik burrunba eta oihiak zetozen. Jendea bere edaria edo jana dastatzen, eta solasaldi lasai batean baldin badago entzuten ez den burrunba. Whatsappez Idiazabal kaleko errepede ondoko argazkia jaso nuen. Sanferminak, edo Gabon Gaueko poteoa balitz bezala. Terrazak jendez mukur.

Igande goiza. Taberna bateko ugazabarekin solasaldia. "Ni neu ere gaztea izango banintz, eta ezin atera, gazte hauek bezala egongo nintzateke, amorratuta, arauak hausteko gertu". Nik erantzun: "Arauak hausten segitzen badute, taberna urtea bukatu baino

lehen itxiko dizute berriro". Hitzik esan gabe egin zuen keinu argigarria zein izan zen asmatuko duzue, sobera nekatu gabe.

Eguerdiko horretan ogia erosi nuen, pintxo bat jan... Herrikide hainbat ikusi nituen, ageriko biharamun zantzuakin. Ez bat, ez bi, ezta hiru ere. Ironiaz mintzatzen saiatu nintzen nire ustezko komunikazio gaitasunaz harro, herritar horietako batzuekin: "Tabernak itxiaz zidaten ahoa: "Tabernak itxi aurretik probestu beharko dugu egoera, orduan". Barre algara, nonahi, mahai bueltan.

COVID-19ak guregan jarraitzen du, ez da joan. Nik ere beste modu batera ikusten dut egoera gertuko senide batek birusak kutsatuta gorriak pasa ostean. Hark esanda dakit jendea ez dela garraio publikoan kutsatzen, nik uste bezala: "Bertan jendea bere munduan joaten da, 15, 20 minutu, gehienak inorekin hitzik egin gabe". Medikuek esana, omen. Benetako arazoa zein den ere esan zioten: "Kontrola galtzen dugunean, zurrutaren ondorioz, musukoa kendu, oihiak, kantak... Orduan kutsatzen da jendea!".

Senidea etxera bueltatuta berarekin egin nuen arratsalde pasan musukoa jantzita eduki nuen, badaezpada: "Medikuek ez dakite ziur COVID-19a pasa dugunok kutsatzen dugun edo ez". Pasa duten gehienak baiezkoan daude: "Gu ja libre gaude, ezin dugu kutsatu", behin eta berriro errepikatzen den mantra. Edo beste hau: "Gripeak jende gehiago hiltzen du eta!". Daukagun, merezi dugun jendartea dugu. Jendea bere eskubideak defendatzeko prest agertzen dena, muturrearaino. Hori bai, betebeharez ez mintzatu. Bitartean, Urnietan:

- Igandean 4 kutsatu berri.
- Astelehenean 2 kutsatu berri.
- Asteartean 0 kutsatu berri.

...



Aiurri eskuragarri:
Etxe etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi eta Joxe Mari Sagaseta (Urnietan).
Diseinua: Goieta Komunikazio Taldea.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: **ERROITZ**
 ALIATUAK: **INSTITUTO**
 TOKIKOM
 BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:
ANDOINGO UDALA
 DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:
Gipuzkoako Foru Aldundia
 ZIURTAGIRIA: **Bikain**
 BABESLEAK:
Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



IRITZIA

JON ANDER UBEDA AIURRI

2020ak albiste ona, albiste pozgarria utzi du

Eskualdean, baina bereziki Andoainen, pandemia garaian egunero-egunero informazio kopuru oparoa eman duen eragile bakarra euskalduna izan da. Euskara hutsean aritu da gizarte osoarentzat lanean, eta jarraikortasun hori izan duen eragilea izanik, erdalduna den hartzailegoaren arreta bereganatzea lortu du. Aiurriri buruz ari naiz, eta bereziki erdaldunen arreta bereganatzea lortu duen Aiurri.eus webguneaz eta Aiurrik Facebook, Instagram Twitter eta Telegram sare sozial ezberdinetan dituen kanalez. Eguneroko informazioa gutxitan bezain garrantzitsua eta erakargarria izan da audientzia zabalarentzat. Informazioaren joko-zelai horretan euskarak abiada handia hartu du, eta abantaila ikaragarria. 2020a

amaitzen ari den honetan, lasai asko esan daiteke gailu digitaletan Andoaingo gizarte zabalaren aldetik sekula ez bezalako ahalegina egin dela euskarazko edukiak irakurtzeko eta ulertzen ahalegintzeko.

2020ak, beraz, albiste ona, albiste pozgarria utzi du: Gailu elektronikoen bitartez euskaraz irakurtzeko, ikusteko eta entzuteko joeran jauzi kualitatiboa eman da erdaldunen aldetik.

Horrek oso gauza ona ekarri du: Inoiz baino gehiago euskalduna ez den hartzaileak

**INFORMAZIOAREN
JOKO-ZELAIAN
EUSKARAK
ABIADA HANDIA
HARTU DU**

euskaraz informatzeko egin duen ahalegina. Adibide asko daude, Aiurritik argitaratzen dena itzultzeko eskatuz. Horiek bada, eta protesta egin ez duten beste askok, Aiurriko informazio jarioaren bitartez euskaraz irakurtzeko, ikusteko eta entzuteko ahalegina egin dute. Informazioa hain garrantzitsua zaionean, hartzaileak ahaleginak eta bi egingo ditu irakurtzen duena ulertzen saiatzeko. Eta Andoainen koronabirusaz informatu duen hedabidea Aiurri izanik, dozenaka herrikide bideratu ditugu informazio hori euskaraz irakurtzera. Ahalegina egitera, bederen. Pozik agertu beharko genuke horregatik.

Hori horrela izan bada, erredakzio taldeari esker izan da. Martxoaz geroztiz,

astelehenetik igandera, ekin betean lanean ari da. Erakundeen adierazpena, datuak, tokian tokiko lekukoak eta gertaerak, erizain eta profesionalen iritziak, galera eta dolua bizi izan zutenen lekukotzak... Koronabirusaren informatzailea izan da Aiurri. Zerbitzu publikoaren bokazioa izan du hasiera-hasieratik eta –barka insistentzia– gaurkoz etenik gabe eta modu jarraituan informatzen duen eragilea izaten jarraitzen du.

Konfinamendu egoeran, informazioaz gain aisialdia

**ERDALDUN JENDEAK
AHALEGIN BEREZIA
EGIN DU EUSKARAZKO
EDUKIAK ULERTZEN
AHALEGINTZEKO**

osatzeko beharra antzeman genuen eta atal berri ugari sortu genituen: Antzerkigintza, ipuigintza, bertsoa, poesia, argazkigintza, yoga, ardogintza... eta muga guztiak hautsi zituen Bertso-VID19 bertso-katea. Kolaboratzaile askoren lanari esker egin zen hori guztia. Zerrenda luzea da, baina haiek guztiak gogoan izatea behar-beharrezkoa da.

Euskaraz bizi nahi duen giza-taldea komunitate osoari begira lanean jarri zen. Txarreanean, gogoan hartu beharko genuke 2020an euskarak eta euskaltzaletasunak komunitateari eskaini dion oparotasuna.

Urtea amaitu bezala jarraituko dugu lanean, etorkizunean. Albiste onak ekar ditzala 2021ak!

Bi ezbehar larri goiz berean

Astearte goizean bi ezbehar larri jazo ziren Andoainen. Goizean goiz izan ziren biak, gainera. Auzokalteko zubi azpitik gertu hilik agertu zen Iñaki Zarraga Etxeberria andoaindarra. Ordu beretsuan, A15 errepidean, kamioi batek istripu larria izan zuen eta bertan hil zen. Bi kasuak argitu asmoz, ikerketak zabalik daude.



ERTZAINZA



AIURRI



Iparragirre zineman eskaini zuen lehen emanaldia, Lourdes Iriondok. ©TRUCHUELO

Lourdes Iriondok lehen kontzertua Andoainen eskaini zueneko

Lourdes Iriondo Andoainen aurkeztu zen kantari gisa jendaurrean lehenengo aldiz, 1964ko abenduaren 29an. Bertako gazte kuadrilla batek osatutako abesbatza izan zuen bidelagun. Ana Mari Larrañaga tartean zen, eta berak gogoratu digu eguna

Xabier Lasa ANDOAIN

Iparragirre antzokian izan zen estreinaldia, Ikastolaren alde antolatu zen jaialdian. Herriko prentsa-kronikari ez ezik, kirolari eta kirol zein gizarte eragile aparta izan zen Bixente Hui-zik iragarri zituen *La Voz de España* egunkarian jaialdiaren nondik norakoa, kulturgile batzuen izenak emanez: txistu emanaldia, Gabon-poesien errezitaldia, Gabon giroko eszenifikatze plastikoa, Bereziartua eta Olaizola akordeoilarien bertso-emanaldia, Zuaznabar anaien txalaparta, eta, azkenik, Lourdes Iriondo, eta herriko abesbatza femeninoak lagunduta (*“Canto y solo de guitarra, por un grupo de jóvenes muchachas de la localidad acompañadas por la señorita Maria Lourdes Iriondo”*).

Urrietan bizi den Ana Mari Larrañaga izan zen emakumeen abesbatzako kideetako bat. “Lourdes Iriondo aurkikuntza zoragarria izan zen euskal gizartearentzat, eta hasiera hartan, baita Iparragirre gainezka jarri zuten andoaindarrentzat. Zer esanik ez, abesbatzako kideontzat ere. Dena zeukan berarekin, gitarra eskuetan zuela eszenategian azaldu zen emakume ezezagun hark: emakumea zen gizonak nagusi ziren plaza publikoan, ahots gozoa zeukan, abesti politen egilea zen (euskal gaztedi berri inkonformistaren ereserkia modukoak ziruditen batzuk), edertasuna itxuraz, eztitasuna eta naturaltasuna formetan... Presentzia zeukan izugarria, eta izar handia bilakatu zen gure bizitzetan”.

Andoaingo emakumeen abesbatzaren nondik norakoak gogoratu digu Larrañagak. Orain Juanita Alkain plaza den horretan zegoen etxean, elizaren inguruko JOC eta JIC gazteen taldeak biltzen ziren; zenbait apaizek eta gizarte eragilek gidatzen zituzten taldeak, gazteen gan katolizismoari lotutako kontzientzia soziala pizteko asmoz. Testuinguru horretan izan zuen sorburu abesbatza taldeak, hain zuzen.

“Emakume batzuk –20 bat urteren bueltan genbiltzan– gau eskola moduko batean hasi ginen, Eugenio Arregi apaiza eta bere iloba Rikardo Arregi irakasle genituela. Euskara ahotara eramateko premia ikusi genuen. Nire kasuan, min ematen zidan ikusteak nola galtze

neukan. Egin kontu, aita-ama eta sei senideak Bergaratik Andoainera heldu ginenean zeharo euskaldunak ginen, baina Andoainen erdaldundu ginen. Frankismoak ezarrita zeukan debekuagatik batetik, baina batez ere, geure erruz. Izan ere, Bergarako euskaragatik barre egiten ziguten (lagun artean “bentanie” esateagatik, harategian “buztana” eskatzeagatik...); bada, egoera horiek eragindako ezinegonagatik, erderara jotzea erabaki genuen etxean”.

Eugenio Arregik gau eskola hartako ikaskideei proposamen erakargarria luzatu zien, behin. “Esan zigun ezagutu berri zuela Urrietan emakume gazte bat euskal kantaria, eta ea animatuko al ginen harekin herrian. Guk baietz erantzun, eta agudo batean, Lourdesekin berarekin entseguak egiten hasi ginen. Egundoko grinaz aritu ginen emakumeak, lehenengo ahotsak zirela, bigarren ahotsa zirela... Lourdesek sortutako hiru abesti landu genituen: *Nere gitarratxo, Abesten dizut Jauna*, eta, *Gazte gera, gazte, eta ez gaude konforme*. Oker ez banago, orduan modan zegoen *Arratsa Moskun*, Lekuonak moldatutakoa ere hartu genuen erreperetiorako”.

Txalo zaparradarekin hartu zituzten Iparragirreko entzuleek, Iriondo zein abesbatza. Iriondok Herri irratian zuzenean kantatu zuen handik gutxira, ezaguna egin zen Euskal Herri osoan (mugimendu euskaltzalean, batik bat), eta harrezkero, han hemen antolatu ziren euskal jaialdi gehienetan hartu zuen parte Urrietako kantariak. Geldirik egon ezineko urteak izan ziren Iriondorentzat; egin kontu, zenbait urtetan, ia 200 kantaldietan kantatzen iritsi zen, bakarka zein 1966ko amaieran plazaratu zen *Ez Dok Hamairu* kolektiboan integratuta.

Ikastolen aldeko jaialdiak

Euskal basoan perretxikoak nola, hala hazten ari ziren ikastola klandestinoak, diru laguntza eta aitormen ofizialik gabeko ikastetxeak, alegia, eta horien aldeko jaialdiak izaten ziren horietako asko. Tartean, 1963k azaroan Marimi Ugalde eta Mari Paz Artolazabal andereñoekin abian jarria zen Aita Larramendiren alde, edota, 1966an Urrietan Maria Pilar Sarasola andereñoarekin aterak ireki zituen Egape ikasto-



Andoaingo emakumeen abesbatza, Lourdes Iriondorekin. Ezkerretik hasita: Identifikatu gabe, Mari Karmen Larrañaga, identifikatu gabe, Ixiar Mendikute, Pili Arbizu, Teresa Erro, Maria Jesus Erro (Iriondoren atzean), Ascension Elorz, Ana Mari Larrañaga, Maite Merino, identifikatu gabe, Arantxa Txopeitia, Maria Jesus Gallego, eta, Ana Iriondo. ©TRUCHUELO

laren alde. Denetik kabitzen ziren jaialdi horien karteletan, ahalik eta herritar gehienengoa asetzeko asmoz. Esate baterako, 1966ko ekainean, berriro ere Lourdes Iriondoren emanaldia iragarri zuten, eta baita nortzuk osatuko zuten emanaldia: *Los Tinkers* musika taldea, Jose Mari Oiartzabal aita-semeak (instrumentu joleak), Migel Bikondoa akordeoilaria, Oinkari dantza taldea, Jose Antonio Villar kantaria, eta, Usandizaga abesbatza.

Iriondo Andoaingo emakumeen abesbatzarik gabe aritu zen bigarren txanda hartan. Egia esanda, ibilbide laburra izan zuen abesbatzak. Hori bai, hiru kidek Iriondoren ikasle izaten jarraitu zuten urte eta erdiz, Larrañagak adierazi duenez. “Inmakulada Garmendia, Arantxa Txopeitia eta hirurok, Iriondoren etxera joaten ginen, de-



Ana Mari Larrañaga, Urnietan bizi den andoaindarra eta atzean Iriondoren etxea.

netik ikastera, solfeoa, kantua, gitarra... Jakina, gure aspirazioa ez zen kantari izatea, euskararen eta euskal kulturaren sakontzea baizik. Iriondo eskuzabala zen guztiz, goxoa tratuan, eta arratsalde politak igaro genituen; musika ez ezik, patata tortillak janez ondo pasatzeko aldarretara denbora ere edukitzen genuen. Noizean behin, Ifnin (Maroko) soldaduska egiten ari zen bere lagun bati bidaltzeko, zinta kasetean berak sortutako abestiak grabatzen genituen. Behin, Urnietako ikastolaren alde bertako antzokian jaialdia antolatu zuten, eta beste emakume batzuekin batera abesbatza osatu genuen Lourdesentzat”.

Denboraren joana gainditu duen artista

Lourdes Iriondo gizatasunaren ikuspegitik izugarritzko emaku-

mea izan zela azpimarratu du Ana Mari Larrañagak; horrez gain, bere kultur balioa aldarrikatzeko gogoia sentitzen du, eta halaxe adierazi digu: “Garai nahasiak izan ziren, oso militanteak; edozein ekitaldira edo jaialdira joateko beti prest izaten ginen, bagenekielako plazan euskal kultura transmitituko zitzaigula, eta gainera, frankismoaren aurkako ekimena izango zela. Militantismo horrek, maiz, ez zuen askorik behar izaten pertsona publikoak alderara eramateko, edo, lur azpian jartzeko. Alde horretatik, batek pentsa dezake Iriondo idealizatzen ari garela. Baina ez dut uste horrela denik, inondik ere. Euskal gizarteari, eta zehazki, euskal kulturari zer nolako ekarpena egin nahi zion argi zeukan abeslaria izan zen, artista hutsa, berezko izar distiratsua. Munduan askok Joan Baez izango zuten erreferentzia nagusia akaso, baina guk, gertuago, Iriondo geneukan, kultur sortzaile gisa, merituak soberan egin zituen. Berak utzitako arrastoa, beharbada, itzaltzen ari den sentsazioa daukat, eta horrexegatik, primeran ikusten ditut bere figura gogoraziko dizkiguten ekimen guztiak, eta urrutira gabe, oraindik orain estreinatu den “Ez gaude konforme, Lourdes Iriondo eta hamaika lore” emankizuna.

Abenduaren 26an 'Oholtzan' telebista saioan

Abenduaren 4an Iriondoren omenez Bastero Kulturgunean antolatu zen ikuskizuna Euskal Telebistan ikusteko aukeraizango da abenduaren 26an. Basteroko emanaldia Urnietako hainbat lekukotzarekin uztartuko dute.



Urnietako
udala



andoainDARRA
euskaraz

Hiru bider zapaldua

Euskalgintzaz eta feminismoaz aritu zen Idurre Eskisabel kazetaria eta antropologoa Bastero Kulturgunean egindako hitzaldian. Andoaingo Udaleko Berdintasun sailak antolatu zuen ekitaldia



Idurre Eskisabel, artxiboko irudian. WIKIPEDIA

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Angela Davisen eta Bernart Etxepareren arteko lotura egiteko eskatuz gero, inork gutxiak jakin-
go luke hori erantzuten. Lehen, estatubatuarra, feminista eta beltza, baita Black Panther mugimenduko militante izandakoa ere; bigarrena, apaiza, lehen

euskarazko liburu inprimatuaren idazlea eta euskalgintzaren lelo esanguratsuenetarikoa baten egilea: “Euskara jalgi hadi plazara”. Bada, Idurre Eskisabel kazetariak eta antropologoak euskalgintzak zein feminismoak elkarrengandik zer ikasia dutela frogatu zuen joan den hilaren 10ean Basteron

egindako hitzaldian: “Euskalgintza eta feminismoa: bidaikidetzat oparo posible bat”. Lorea Agirrekin, Jakin aldizkariko zuzendariarekin, batera ondutako proiektua da, eta aferaren gaineko hausnarketak entzuteko aukera izan zuten hitzordura bertaratu zirenek.

“Menturari hiru dohain zor dizkiot: emazte sortu izana, klase sozial apalekoa eta herrialde zapaldukoa. Eta hiru bider errebelde izateko urdin uherra” dio Maria Merce Marçal poeta kataluniarrak. Hitz horiek gogora ekarri zituen Eskisabelek hitzaldian, izan ere, haren esanetan, Davisek feminismoari egindako ekarpena laburtzen du poema horrek. Hizlariak adierazi duenez, 70. hamarkadaren amaieran eta 80. hamarkadaren hasieran, Europako feminismo zuria indarra hartzen ari zen garaian, Davisek “konplexutasun” bat gehitu zion korronteari: “Emakume bakarra hartzen zen feminismoaren subjektutzat, emakume zuria eta gainera klase ertain altukoa”. Hala, “emakumea” zioten lekuan “emakumeak” ipini behar zela aldarrikatu zuen feminista estatubatuarrak, eta ondo baino hobeto laburtu ideia hori “Emakumeak, arraza eta klasea” liburuan. Davisek feminismoari egindako ekarpen handiena dela uste du Eskisabelek: “Bertan adierazten da ez garela bakarrik emakumeak, munduan gu kokatzen gaituzten botere-posizio horietan arrazak eta klaseak ere eragina dutela. Erantsi daitezke beste ezaugarri batzuk ere”. Gauzak horrela, subjektuak azpiratzeko hiru aldagai formulatu zituen Davisek; egun, hori interseksionalitate gisa ezagutzen da, zapalkuntza ezberdinen gurutzaketaren ideia. Gainera, bertute

handitzat jo du Eskisabelek azpiratzeko-mekanismoei begirada horretatik erreparatzea: “Ikus-tarazten digu gutako bakoitza ez gaudela posizio berean. Hau da, zapaldua ez dela beti zapaldua izango, ez eta zapaltzailea beti zapaltzailea ere”.

Horrenbestez, hizlariarentzat zilegi da hiru ezaugarri horien osaketan, Davisek arraza dioen lekuan nazioaren auzia jartzea. Arraza kategorizazio politikoa dela azaldu zuen Eskisabelek, eta, ondorioz, nazioa ere kolektiboak kategorizatzeko beste aldaera bat dela gehitu zuen. Hori ez ezik, nazioa aipatzean hizkuntzaz mintzatzea zentzuzkoa dela ere uste du antropologoak, “hizkuntza delako herri-kultura izaeren argamasa. Orduan, Euskal Herrira etorrita, are argiagoa da horren garrantzia kolektiboaren osaketan, baita horren deuseztean ere”.

Naturalizazioa ere izan zuen hizpide hitzaldian, eta “suntsipen handiko arma” dela adierazi zuen “mendealdeko gizon zuri, heterosexual, arrakastasu eta hizkuntza hegemoniko bateko hitzun ez den ororentzat”, alegia, hizlariaren esanetan, “gehienontzat”. Eta antropologoak adierazi zuenez, kontzeptu hori aipatzean, ezinbestean, botereaz ere hitz egin beharra dago, zeren botereak botere izateko indarra eta zigorra erabiltzeko aukera behar baititu. Ordea, Eskisabelek ziurtatu zuen, boterean irauteko etengabeko zigorra erabiltzea “bide txarra” dela, eta ondorioz, beste “mekanismo maltzurragoa” erabili ohi dela, naturalizazioa, hain zuzen: “Azpiratzeko egoeran dauden horiei sinestertzat zaie boterearen marjineko posizioan egon behar dutela, dituzten ezaugarriengatik eta funtzioengatik. Naturalizazioa gutako bakoitzean eratzen dugu, geuk gorpuzten dugu naturalizazio horrek dakarren bazterketa”.

Hortaz, bai feminismoan, bai hizkuntzaren auzian, naturalizazioak eragina duela uste du Eskisabelek: batetik, hizlariak dioenez, emakumeak emakume izate hutsagatik atxikitzen zaizkion ezaugarriek eta funtzioek berek eramatzen dute bazterrean egotera; hau da, jaiotzen diren etik sozializazio-prozesuan ezaugarri batzuk erantzen zaizkie emakumeei, gizonen aldean, edo mutil izendatzen direnen aldean, bestelakoak direnak. Bestetik,

haren iritziz, hizkuntza gutxituei ere emakumeei ezarritako ezaugarriak atxikitzen zaizkie: “naturarekin lotzen dira, basak dira, emozionalak, gauza inportantez hitz egiteko ez gaiak, etxerakoak eta zaindu beharreko toki horretan egotekoak, baina ez arlo publikorako, hau da, partikularitatearen eta unibertsaltasunaren ifrentzua dira”.

Eman beharreko pausoak

Hitzaldia borobiltzeko, egoerari aurre egiteko eman beharreko pausuez mintzatu zen Eskisabel, eta azaldu zuen feminismoak “oso ondo landu eta ekarri” duela praktikara naturalizazioaren kontrako bidea. Lehenik, jabetzea aipatu zuen, hots, egoeraren jakitun izateaz gain, ezintasunak eta minak detektatzea. Bigarrenik, ahalmentzea izan zuen hizpide, hizlariaren hitzetan, feminismoan sarri entzun ohi den kontzeptua: “Eskubide osozko pertsona gisa irudikatzea nork bere burua”. Azken urteetan, hizkuntzaren auzian kontzeptu hori ere ageri dela uste du kazetariak. Azkenik, boteretzeaz hitz egin zuen, bakanakako ariketa borroka kolektibo gisa ulertzeaz, alegia.

“Feminismoan, jatorrian, identitate-auzia zena, justizia-sozialaren terminoetara eramaten asmatu du feminismoak. Hau da, guztion arazoa dela barneratu da jendartean”. Hala, euskalgintzak ere halaxe egin beharko lukeela uste du Eskisabelek, eta euskararen auzitzat jo beharrean, egileak nahiago du hizkuntza gatazka gisa definitu, izan ere, “arazoa beti euskararengan jartzen dugu eta inoiz ez gatzelerarengan edo frantse-sarengan. Eta gatazkak ez dira txarrak, baldin eta irtenbidea topatzen bazaie”. Hori dela eta, hizlariak dio hizkuntza-auzia ez dela euskaldunon aferra izan behar soilik, baizik eta feminismoan lez, aferra kolektibotzat ulertu beharra dagoela. Haren aburuz, jendartean oraindik ere “berdintsua” da euskalduna edo emakumea izan, bazterrean kokatzen dituzten mekanismoak berdintsuak dira: “Ondorioz, ahaldundutako, boteretzeko eta eraldaketa kolektiborako ere antzeko mekanismoak partekatzen dituzte; horregatik, uste dugu badutela elkarrekin, bai hartu-emanerako bide handia, bai batera egiteko bide oparoa”.



Mikel Arregi, anaiaren izena daraman kazetaritza sarien aurkezpen ekitaldian. AIURRI

Mikel Arregiren agurra

Urteko azken Udal batzarraldian zinegotzi izateari utziko dio Mikel Arregi jeltzaleak. Udal politikagintzan egin duen ibilbide oparoaren bigarren aroa osatu du, uste baino lehen amaitu dena. Politikan bezalaxe, euskalgintzan eta bizikidetzan nabarmendu da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Mikel Arregik Udal politikagintzan egin duen bigarren agerraldiari amaiera emango dio ostegun honetan, urte eta erdiko ibilbidearen ostean. Ez du agintaldia amaitzeko aukera baliatu, eta dimisioari buruzko azalpenak urteko azken plenoan emango dituela espero da. Bigarren agurra izango da, lehenengoa 2007ko maiatzaren 17an izan baitzen. Lau agintalditan udalgintzan izan eta gero, orduko hartan hitzalditxo baten bidez agur esan zuen. Eskerrak eman eta barkamena eskatu zuen, hamasei urteetan zehar bizi izandako une gaziak eta gozoak gogora ekarriz. Beste belaunaldi berriei aukera emateko garaia dela adierazi zuen bere lehen agur hartan, eta baita udal ordezkaria izatea ohorea izan zela gaineratu ere.

Adierazpena amaitzerakoan txalo egin zioten ordezkari guztiek, eta gobernu ardurak zituzten sozialistak eta popularrak berehala hurbildu zitzaizkion bostekoa ematera. 2003-2007ko agintaldiari amaiera eman zion azken plenoa izan zen, eta orduko hura ere azken plenoa izan zen EAko Xabier Huitzi Belamendiarentzat.

Ezin aipatu gabe detaile hori, 2021eko urtariletik aurrera Udalean Mikel Arregiren lekukoa hartuko duena Xabier Huitzi Alfonso ziren seme Alex Huitzi Alfonso izango baita.

2003KO UDAL HAUTESKUNDEETAN GARAILE IZAN ARREN, PEREZ GABARAINEK HARTU ZUEN AGINTEA

2003ko Udal hauteskundeetan garaile

Ezker abertzalea lege kanpo zegoela, EAJ-PNV eta EA alderdiak koalizioan aurkeztu ziren Andoainen. Mikel Arregi izan zen zerrendaburua, eta garaipena eskuratu zuen. Hauxe izan zen emaitza:

Alderdia	Botoak
EAJ-PNV/EA	2.677 (7).
PSE-EE	2.566 (7).
PP	727 (2).
EB/IU	526 (1).

Hauteskunde gauaren eta kargu hartze ekitaldiaren arteko hamabostaldi horretan PSE-EEK eta PPK akordioa lortu zuten, eta Josean Perez Gabarain hautagai sozialistak lortu zuen alkatetza. Andoaingo udalgintza-ren historian sarritan gertatu ohi denez, sozialistak izan ohi dira hauteskunde osteko akor-

dioetan probetxu handiena lortzen dutenak. Ezker abertzalea lege kanpo, konstituzionalisten adostasunak zigor erantsia ekarri zion abertzaletasunari.

Bigarren aroa Udal politikagintzan

2007an politika utziko zuela iragarri bazuen ere, 2019an Mari-jose Izagirre jeltzaleen alkategaiak hautes-zerrendako lehen postuetan aurkezteko egin zion proposamena onartu zuen. Izagirre alkategaia pozarren zegoen hauteskunde-kanpainan, Aiurri eskainitako elkarrizketan: “Oso pozik gaude. Oso talde sendoa osatu dugu, lidergoa islatzen duena”. Eta elkarrizketan, aurrerago, ideia berari eutsi zion: “talde sendoa daukagu. Udalgintzan esperientzia handia duena. Prest gaude”.

Oso bestelakoak izan dira kon-tuak, ordea, ordutik hona. 2019ko maiatzeko Udal hauteskundeetan 4 zinegotzi lortu zituen EAJ-PNVk, eta bidean bi zinegotzik aurkeztu dute errenuntzia. Lehe-na, Iñaki Egibarrena izan zen. Iazko udazkenean agur esan zuen. Bigarrena, Mikel Arregi-rena. Urte eta erdiko ibilbidea egin eta gero, hauxe dirudi Mikel Arregiren behin betiko des-pedida.


Deigarria egiten da errenuntzia bikoitza, esperientzia handiko bi zinegotzien aldetik, agintaldi honetan EAJ-PNV alderdiak gobernu ardurak hartu dituen gainera.

Memorian eta bizikidetzan murgilduta ibili da Arregi

Udal politikagintza-ren bi aro ezberdinen artean, bizikidetzaren alde lanean diharduen Elkarbizi taldeko eragile lanetan jardun du. Hitzaldiak, ikastaroak eta ekitaldiak antolatu izan dituzte, besteak beste. Andoainen, gaurko egunez, biktima guztien alde antolatzen den ekitaldi publiko bakarraren antolatzailea da Elkarbizi.

Andoaingo EAJ-PNV alderdiak, ohar bidez, errenuntzia iragar-tzearekin batera esker ona adie-razi dio Mikel Arregiri.

URTEKO AZKEN PLENOAN AMAIERA EMANGO DIO IBILBIDE POLITIKO OPAROARI



Alex Huitzi. EAJ-PNV

Alex Huitzik hartuko du lekukoa


2019ko Udal hauteskundeetan 14. postuan aurkeztu zen hautagaiak hartuko du Mikel Arregiren lekukoa. Alex Huitzi Alfonso sorabillatarra da, 1992an jaioakoa. Iñaki Egibarrek dimisioa eman zuenean, zerrendan bosgarren aurkeztu zen Imanol Goenagak hartu zuen bere lekukoa. Oraingo honetan, ordea, Arregiren ordezkoa izendatzeko EAJ-PNVk zerrendan atzera egitea erabaki du.

Alex Huitzik 2021eko urtarilean hartuko du zinegotzi akta.

Azken hilabeteetan Euskaraldiko ekitaldietan bereziki nabarmendu da. Xabier Huitziaren semea da, hura ere politikagintzan ibilbide oparoa egindakoa.

Alex Huitzik La Salle Berrozpe ikastetxean egin zituen ikasketak eta Zuzenbidean graduatua da. Alderdiak emandako datuen arabera, Huitzik hiru urte daramatza Nazio Batuetako Garapen eta Merkataritzako (UNCTAD) kanpo aholkulari gisa, eta zeregin hori Elduaian Hizkuntza eskolan irakasle lanarekin osatzen du.

Andoaingo EAJ-PNV alderdiak, ohar bidez, ongiatorria eman dio Alex Huitziri.



Eguberrietako argiak, Andoaingo kaleetan. AIURRI

Ez ohiko Gabonak

Salbuespenak iragarri badituzte ere, koronabirusaren eraginpean jarraitzen dugu. Horrek esan nahi du prebentzio eta segurtasun neurriak zorrotz jarraitu behar ditugula, egoera epidemiologikoak okerrera egitea nahi ez badugu

Erredakzioa ANDOAIN

Urte hasieran inork gutxi sine-tsiko luke mundu mailako osasun-larrialdia gainera zetorrela esanez gero. Baina hain urruti ikusten zen gaitza egun gutxiren buruan iritsi zen irrati eta telebistako albistegietara, eta baita etxeko atarira ere. Hustu egin ziren eskolak, kaleak eta lantokiak, ia basarmotutzeraino. Eta askoren ustez (edo nahiez) bi astetako kontua izango zena, luze jotzen ari da, luzeegi, gehiengoaren ongizaterako.

Atzera begirako ariketa egiteko aukera eman ohi dute amaierak. Eta urteak eman dituen titular nabarmenenek 2020ko kronika goibela uzten dute. Gabonak ere bestelakoak izango dira aurten batzuen kalterako, edo mesederako.

Begien bistan ikusezina den zomorroak argitara atera ditu ezkutuan gordetakoak. Ezinegonak eztatariak korapilatu ditu, eta beldurrak gorpuztu. Barruan egon beharreko garaioan, nork bere barrura egin dezala salto eta urteak utzitakoekin topo egin: "Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu".

Aiurri.eus webgunea zabalik

Erredakzio taldeak Aiurri.eus webgunean informazioa zabaltzen jarraituko du. Egunez eguneko gertaerak, Eguberrietako hitzorduak, egoera epidemiologikoaren jarraipena... albisteak zabalduko dira egunero, urte osoan bezalaxe.

Aurten, gainera, egoera oso aldakorra da eta azken ordukoen zain adi ibili beharko dugu.

Harpidedunei oharra

Hau da urteko azken astekaria, eta 2021eko lehena urtarrilaren 7tik aurrera banatzen hasiko gara. Harpidedunek egun hauetan paretako egutegia jaso dute. Harpidedun izatearen abantailak.

Eguberri eta urteberri on!





Olentzero eta Mari Domingi, artxiboko irudian. AIURRI

Olentzero eta Mari Domingi gure artean

Andoaindarrek eta urnietarrek Olentzero eta Mari Domingiren etorrera ikusteko aukera izango dute, bideo bidez. Abenduaren 24ko arratsaldean izango da, eta Aiurri.eus webgunean ikusi ahal izango da

Erredakzioa ANDOAIN

Andoainen Aita Larramendi ikastola eta Etxeberrietako jai batzordea Olentzerori ongi etorria emateko lanean ari dira. Aiurriren bitartez zabalduko da, bideo bidez. Andoaingo haur eta gazteak adi, beraz, abenduaren 24ari.

Arratsalde aldean zabalduko dira irudiak.

Olentzerori gutuna

Abenduaren 24an bertan, 10:00-14:00 bitartean, haurrek gutuna uzteko aukera izango dute Udalteixe aurrean, Basteroko plaza-txoan eta Zumea plazako Puxika dendaren aurrean.

Unrietako ekitaldia

Egape dantza taldeak antolatu ohi du Olentzero eta Mari Do-

mingiren etorrera. Ezagunak diren arrazoiak tarteko, Urnietara etorri ezinik izango dira pertsonaia magikoak. Nolanahi ere, Egape dantza taldeko kide batzuk Goiburu aldean aurkitu dituzte eta besterik ez bada bideo bidez mezua helaraziko dutela aurreratu dezakete.

Eguberriotan Aiurri.eus webgunean topatuko ditugu.



Nerea Ibarzabal eta Uxue Alberdi bertsolariak. BERTSOA

Bertso saioa eta antzerki emanaldia Saroben, Gabonetan

Abenduaren 26an "Baldin Bada" ikuskizuna, eta abenduaren 27an bertso saioa

Erredakzioa URNIETA

Urte amaierak emango dizkie urnietarrei kulturaz gozatzeko zenbait aukera. Izan ere, ikuskizun bat eta bertso-saio bat antolatu dira hilaren amaierarako. Biak ala biak lehenago egitekoak ziren, baina atzeratu egin behar izan zituzten, egoera epidemiologikoa dela-eta.

Umerezko ikuskizuna abenduaren 26an

Lehen hitzordua, abenduaren 26an izango da, larunbatean. Urnietako udalaren eskutik, zirkua ekarriko du Sarobe arte eszenikoen gunera Shakti Olai-zola artistak. "Baldin bada" du izena ikuskizunak eta margolari baten zein musikari baten abenturak izango dira oinarri obran. Kontortsio eta akrobaziak ez ezik, umoreaz eta antzerkiaz gozatzeko aukera ere izango du bertaratzen den orok. Gainera,

zuzeneko musikak girotuko du, Joseba Negrok, hain zuzen ere. Kaleko ikuskizun formatukoa bada ere, Saroben egingo da ikuskizuna.

Bertso saioa abenduaren 27an

Bigarren kultur-ekitaldia egun bat beranduago izanen da, hilaren 27an, igandean, 19:00etan. Poxta Zaharrek errimez beteko du Sarobe, Irati Zinkunegik gidatutako bertso-saioan; kantuan Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta Nerea Ibarzabal izango dira.

Sarrerei dagokionez, abenduaren 26ko ikuskizunerako sarre-rak dagoeneko eskuragarri daude Saroben eta Bibe.me webgunean ere. Bertso-saiorako gonbidapenak ere Saroben har daitezke, dagoeneko.

Hitzordu berriak egonez gero, horiek Aiurri.eus webgunearen eta sare sozial ezberdinen bitartez zabalduko dira.

Ingeles eskola
Eguberri, eta Urte berri on!
Merry Christmas and a Happy New Year

Cambridgeko azterketen prestakuntzarako zentro homologatua

Ondarreta kalea, 7 behea. ANDOAIN
943 300 839. www.andoainenglish.com

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Aiurri urtarilaren 7an argitaratzen hasiko gara berriro.

Bitartean albisteak aiurri.eus webgunean.

URTE BERRI ON, IRAKURLE!

www.aiurri.eus



Lehiaketako saridunak

Danobatgroup kooperatiba taldeak lehiaketa antolatu du, 2020ko euskararen egunaren harira. Irabazleak Jaione Aranguren eta Irune Lopez izan dira. Zorionak! Autrengo kanpainaren lema "Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia" izan da. Danobatgroupek euskararen erabileran eragiteko konpromiso irmoa du.



DANOBATGROUP



Azaroan ageri den argazkia. DIEGO BARRASA

Egutegia, eskuragarri

Udaletxeko Ataria herritarren arretarako zerbitzuan jaso daiteke Andoaingo Udalaren egutegia. Arrakasta handia izan ohi du, azkar batean agortzen baitira. Goizeko 10:00etatik 13:30era, herrikide bakoitzak gehienez ere bi egutegi jaso ahal izango ditu

Erredakzioa ANDOAIN

Sari banaketa ekitaldia asteazken iluntzean egin zuten. Gaia koloreak zen. Aurtengo irabazleak hauexek dira:

- Urtarrila: Alain Saiz.

- Otsaila: Imanol Fernández.
- Martxoa: Jose Angel Amuchastegui.
- Apirila: Angel Carrasco.
- Maiatza: Nerea Hernández.
- Ekaina: Xabier Alkorta.

- Uztaila: Carlos Martin.
- Abuztua: Diego Barrasa.
- Iraila: Alicia Muñoz.
- Urria: Alicia Muñoz.
- Azaroa: Diego Barrasa.
- Abendua: Juanan Lazkano.



Harpidedun, iragarle,
irakurle: Eguberri
eta urte berri on.

www.aiurri.eus



Urrian ageri den argazkia. ALICIA MUÑOZ

HITZORDUAK

UDAN ZEHAR EKITALDIAK AIURRI.ESU GUNEAN ZABALDUKO DIRA. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 17

ANDOAIN Egutegiak

Andoaingo Udal egutegia jasotzeko epea zabalduko da. Herritar bakoitzak gehienez ere bi egutegi eskuratu ahal izango ditu.

10:00-13:30 Udaletxea.

ANDOAIN Erakusketa

Irautza dantza taldearen eskutik, euskal jantziak ikusgai.

Bastero, erakusketa aretoa.

ANDOAIN Hitzaldia

Ramon Garciak euskal jantzien inguruko hitzaldia eskainiko du.

19:00 Bastero.

URNIETA Kontzertua

Lourdes Iriondo musika eskolako kontzertua. Aste osoan egin dituzten azken emanaldia.

18:30 Sarobe.

LARUNBATA 19

ANDOAIN Erakusketa

Erraldoi eta buruhandien konpartsa. Urtarrilaren 8a arte zabalik.

Bastero, erakusketa gunea.



Erraldoi eta buruhandien konpartsa. AIURRI

ANDOAIN Erraldoi eta Buruhandien konpartsa Basteron

Andoaingo erraldoi eta buruhandiak Basteroko erakusketa gelan egongo dira ikusgai Gabonetan. Urtarrilaren 8a arte bisitatu ahal da honako ordutegian: astelehenetik ostiralera 18:30-20:00, larunbatetan 10:30-13:00 / 18:30-20:30. Abenduak 24 eta 31 arratsaldez itxita. Itxita: abenduak 25, urtarrilak 1.

Abenduak 19-Urtarrilak 8. Basteroko Erakusketa Gelan.

IGANDEA 20

URNIETA Zozketa

Bazkideen artean hiru sari banatuko dituzte. Zozketarako txartelak ostegunetik aurrera eskuragarri.

13:00 Denda Berri.

OSTEGUNA 24

ESKUALDEA Etorrera

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera Andoainera eta Urnietara. Adi Aiurri.eus webgunera.

Aiurri.eus.

LARUNBATA 26

ANDOAIN Kontzertua

Sonakay Guztiekin. Flamenko musika.

19:00 Bastero. Sarrerak salgai.

ANDOAIN Aisialdia

Wii pantaila erraldoian.

Gazte Lokala.

ASTELEHENA 28

ANDOAIN Aisialdia

Scape room.

Gazte Lokala.

ASTEARTEA 29

ANDOAIN Gazte Lokala

Gabonetako opari tailerra.

ASTEAZKENA 30

ANDOAIN Aisialdia

Txuri Urdinera irteera.

Gazte Lokala.

ANDOAIN Antzerkia

Porno vs. Afrodita helduen antzezlan.

19:00 Bastero. Sarrerak salgai.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN Alaia Gil Garmendia
8 urte potolo gure artean. Jarraitu orain arte bezain zoriontsu izaten eta ondokoak maitatzen.



ANDOAIN Enara Arevalo Garcia
Abenduaren 20an 6 urte! Txokolatezko muxu erraldoia etxekoan partez...



ANDOAIN Xune
Txirrindulari, sukaldari, jostalari... Xunek 8 urte beteko ditu hilaren 28an. Ederki pasako dugu, 2020 osoan bezala! Etxekoak.



ANDOAIN Adei
Adeik 8 urte beteko ditu datorren abenduaren 22an. Zorionak bitxito, segi beti bezain alai! Muxuak, etxekoak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 19, igandea 20
Monfort: Aita Larramendi, 26.
943 300 913. Andoain.

URNIETA

Larunbata 19, igandea 20
Tanco: Idiazabal, 39.
943 550 942. Urnieta.



Gabonetan ahaztu ezin ez diren oharrrak

Ertzaintzak eta Udaltzaingoak hainbat irizpide hartuko dituzte kontuan, goi agintaritzak ezarritako azken neurriak oinarri hartuta. Horrez gain, herritarren ohiko zalantzak ere argitu dituzte.

Erredakzioa ANDOAIN

Pertsonen gaueko zirkulazio-askatasuna mugatzea ekarri dute osasun-larrialdiari aurre egiteko hartutako irizpideek, hau da, etxeratze-agindua ezarria dago gaueko 22:00etatik goizeko 06:00tara. Hala ere, Ertzaintzak zein Udaltzaingoak iragarri dute, zirkulazio-askatasunaren mugaren hasiera-ordua 01:30ean izango dela honako egun hauetan: abenduaren 24tik 25ra bitartean eta abenduaren 31tik urtarrilaren 1era bitartean. Kasu horietan, ordu malgutasuna etxera itzuli ahal izateko soilik ezarriko da, eta ez hainbat gizarte-topaketetara joateko, alegia.

Mugikortasuna

Bestalde, 2020ko abenduaren 23tik 26ra bitartean, eta 2020ko abenduaren 30etik 2021eko urtarrilaren 2ra bitartean, muga kendu egingo da, bai lurralde historikotik kanpo, bai Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten diren joan-etorrietarako, baldin eta senideen edo hurbileko pertsonen ohiko bizilekura joateko badira. Horietan, errespetatu egin beharko da helmugako Erkidegoak ezarritako pertsona-taldeen gehieneko kopurua.



Ertzaintza kontrolak egiten ari da, han-hemenka. IREKIA

Hainbat galderei erantzuna Joan naiteke Euskaditik kanpo dagoen nire bigarren egoitzara?

Ez, aurreikusitako salbuespenak izan ezik.

Zenbat lagun bildu gaitezke, 6 edo 10?

Gehienez ere 6 pertsona elkartu ahal izango dira. Hala ere, 2020ko abenduaren 24tik 2020ko abenduaren 25era bitartean eta 2020ko abenduaren 31tik 2021eko urtarrilaren 1era bitartean, Eguberrietako bazkari eta afariak egiteko familia-topaketek ez dute 10 pertsonako gehieneko kopurua gaindituko.

Baimenduta al dago adinekoen egoitzetara joatea?

Bai, baldin eta zentroak berak baimendutako bisitak badira.

Beste Lurralde Historiko batera joan daiteke pertsona bat aireportura, geltokietara eta abarrera jasotzera edo eramatera?

Bai.

Lurralde Historikotik kanpo joan naiteke beilatoki eta ehorzketetara?

Baimena ematen da, bigarren mailara arteko ahaideen heriotzagatik.

Oharra: Xehetasun guztiak Aiurri.eus webgunean.



Andoaingo eta Urnietako egoera epidemiologikoa

Intzidentzia tasa apala den arren, aste batetik beste positiboen kopurua igotzen ari da

Erredakzioa ANDOAIN

Nabarmen hobetu da egoera, eta intzidentzia tasa metatua horren adierazle da. Abenduaren 15ean, gainera, UCI-ZIUetako okupazioa 99raino jaitsi zen. Asteak ziren ez zela ehuneko langatik jaisten. Herena murriztu da, astebeteko

epetan. Osakidetzan ospitaleratu dagoen haur kopurua ere txikiagoa da. Azken datuaren arabera 344 pertsona zeuden ospitalean. Datu horiek guztiak onak izanagatik ere, bada kezka eragiten duen datua: Azken egunetako positibotasunaren igoera.

Andoaingo eta Urnietako egoera epidemiologikoa

ANDOAIN, ASTEZ ASTE

Abenduak 9-15:

- 9 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 80,29.
- ID: 0,41.

Abenduak 2-8:

- 3 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 194,04.
- ID: 0,38.

Azaroak 25-abenduak 1:

- 26 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 515,22.
- ID: 0,65.

Azaroak 18-24:

- 51 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 796,25.
- ID: 0,82.

Azaroak 11-17:

- 68 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 970,22.
- ID: 0,92.

Azaroak 4-10:

- 77 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 1057,21.
- ID: 1,18.

Urriak 28-Azaroak 3:

- 81 kasu positibo.

URNIETA, ASTEZ ASTE

Abenduak 9-15:

- 7 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 161,55.
- ID: 1,43.

Abenduak 2-8:

- 3 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 113,09.
- ID: 0,41.

Azaroak 25-abenduak 1:

- 4 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 274,64.
- ID: 0,89.

Azaroak 18-24:

- 13 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 306,95.
- ID: 0,58.

Azaroak 11-17:

- 6 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 533,12.
- ID: 0,32.

Azaroak 4-10:

- 27 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 1647,82.
- ID: 0,59.

Urriak 28-Azaroak 3:

- 75 kasu positibo.

COVIRAN KARRIKA

Urte osoan zehar bezero izan ditugun auzokide eta herritarrei esker onez,

Eguberri eta Urte berri on!

Gurmendi kalea, z/g
20140 Andoain
943 306 501

Igande eta jai egunetan goizetan zabalik